

2014-12-18ko EZ-OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2014ko abenduaren 18an, arratsaldeko 06:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeko zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Gorka Murua Macuso eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Josu Yurrita Loitegi, Tomás Etxeberria Sarasola eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-11-25).

2014ko azaroaren 25eko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO AZAROAREN 21ETIK ABENDUAREN 11RA.

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari: 2014ko 253. zenbakitik, 276 zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2015EKO EKITALDIRAKO KULTURA ETA KIROLA ZERBITZUEN UDAL TASA ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak jakinarazi du Kulturako Batzorde Informatiboaren proposamena kultur eta kirol emateko zerbitzuen Tasen aldaketari buruz.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hauxe onartu du:

1º.-Behin behin zerbitzu publikoak eskaini eta iharduera administratiboak burutzeagatiko Tasen Ordenantza Fiskalaren hurrengo aldaketak onartzea:

A) Trinketea eta Frontoia erabiltzeko Tasa:

1.-Trinkete:

-Hileko abonua : 7 euro.

B)Udal euskal pilota –eskolaren Tasa anulatzea.

C)Kirol eta Kultura zerbitzuen Tasa:

-Hobariak: Langabetuak, famili ugariak, jubilatuak eta gazte-txartela dutenak: %20 beherapena egitea ikastaro bakoitzean.

-Ikastaro berriak:

-Body Combat:72€

-Skate:30€

Bigarrena.- Akordioa eta espediente jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean

Por parte de la Alcaldía se da cuenta de la propuesta de la Comisión Informativa de Cultura de modificación de las Tasas por la prestación de servicios culturales y deportivos.

Ante ello, La Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

1º.-Aprobar con carácter provisional las siguientes modificaciones de la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas:

A) Tasa por la utilización de los servicios del trinkete y frontón:

1.-Trinkete:

-Abono mensual: 7 euros.

B) Anular la Tasa por la escuela municipal deportiva de pelota vasca

C)Tasa por prestación de cursos culturales y deportivos.

-Bonificaciones: Desempleados, familias numerosas, jubilados y poseedores de gazte-txartela: 20% de descuento en cada curso.

-Nuevos cursos:

-Body Combat : 72€

-Skate: 30€

Segundo.-Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa

eta Udal honetako iragarki-taulan argitaratzea. Izapidetzerako (tramiterako), arau hauek beteko dira:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzailetzan egongo da.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita (lehen egun baliodunetik), eta Udal-bulegoko lanorduetan.

c) Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozeduraren Legearen 38. artikulua jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzaren aurrera eraman beharko dute.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Tercero.- En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.”

LAUGARREN GAIA AMETSA PILOTA ELKARTEAREKIN HITZARMENA ALDATZEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Udal honek 2014ko azaroaren 28an egindako Udalbatzaren bilera onartu zuen Ametsa Pilota Elkartearekin xare eskola emateko 2014-2015 ikasturtean.

Baina, bi aldaketa sartu nahi ditu Hitzarmenean:

a)Udalaren tasari buruz aipamena.

b)Diru laguntza gastuaren %100 izatea 4.900 euro mugarekin.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

AKORDIOA

1.-Aipatu diren aldaketak onartzea eta Hitzarmena osoa ere.

2.-Irurako Udaleko Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

BOSGARREN GAIA

IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskara Batzorde Informatiboak, 2014ko azaroaren 25ean egindako bileran, Irakaskuntzako Erakundeentzako diru-laguntzen alde erabakia hartu zuen.

Hori dela eta, Udalbatzak, aho batez, diru-laguntza hauek onartzen ditu:

1.-	Erakundea	Kopurua.
	-IBILALDIA	200€
	-ARABA EUSKARAZ	200€
	-KILOMETROAK	200€
	-NAFARROA OINEZ	300€
	-HERRI URRATS	300€

2.-Diru-laguntza hauek ordaintzea.

SEIGARREN GAIA

EUSKALGINTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskalgintzako erakunde batzuk diru-laguntza eskatu dute. Gaia aztertu ondoren, Euskara Batzorde Informatiboak, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea erabaki zuen.

Hala ere , diru laguntza hau zuzeneko emakida da eta Udalaren 2014ko Aurrekontu Orokorrean izenez esleituta dago.

Hori ikusita Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

- 1.-Kontseilua Erakundeari 300 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.
- 2.-Galtzaundi Euskara Elkarteari, 2014an burutuko dituen euskara sustatzeko jarduerak babesteko 2.000 euroko diru-laguntza ematea. Baina diru-kopurua jaso aurretik, arazoaren 17ko 38/2003 diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, baldintza hauek bete beharko ditu:
 - a) Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea.
 - b) Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria aurkeztea, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.
 - c) Udal ordenantzaren 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazten duen idatzia aurkeztea.
 - d) Diru laguntza zuritzeko aurkeztu behar da dokumentazio hau:
 - Diru-laguntzaren helburu diren jarduerak azaltzeko memoria eta lortutako emaitzen balorazioa.
 - Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, erakundeko idazkariak edo dagokion arduradunak sinatuta .
 - e) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak aurkeztea.

ZAZPIGARREN GAIA

EUSKAL HEDABIDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Tolosaldeko Hedabideek diru-laguntza eskatu dute eskualdeko proiektu bateratua aurrera eramateko (Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L.).

Euskara Batzorde Informatiboak, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea onartu zuen.

Hala ere, diru laguntza hau zuzeneko emakida da eta 2014ko Udalaren Aurrekontu Orokorrearen izenez esleituta dago.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

- 1.-Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L-ri 7.100 euroko diru-laguntza ematea onartzea, baina diru-kopurua jaso aurretik, arazoaren 17ko 38/2003 diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea.
 - b) Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria aurkeztea, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.
 - c) Udal ordenantzaren 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazten duen idatzia aurkeztea.
 - d) Diru laguntza zuritzeko aurkeztu behar da dokumentazio hau:
 - Diru-laguntzaren helburu diren jarduerak azaltzeko memoria, eta lortutako emaitzen balorazioa.
 - Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea , erakundeko idazkariak edo dagokion arduradunak sinatuta.
 - e) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak aurkeztea.
- 2.-Info7 Irratia-Aztibegia Elkarteari 200 euroko diru-laguntza onartzea eta ordaintzea.

ZORTZIGARREN GAIA.
EUSKAL FONDOARENTZAKO 2014KO DIRU-LAGUNTZA
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak , Euskal Fondoko kide bezala eta honekiko hartutako konpromiso ekonomikoari erantzunez, 2014ko ekitaldirako 3.000 €-tako ekarpena egitea nahi du.

Hala ere, diru laguntza hau zuzeneko emakida da eta 2014ko Udalaren Aurrekontua Orokorrean izenez esleituta dago.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

1º.- 3.000 euroko diru laguntza ematea egitasmo honi: "Euri- urak drainatzeko eta saneamendua hiri erdigunean Juan Castro eta Aleyda Delgado auzoetan Managuan (Nikaragua).

2º.-Diru laguntza onartzea.

BEDERATZIGARREN GAIA
GIZARTE LARRIALDITARAKO LAGUNTZAREN DIRU LAGUNTZA
LERROAREN INDARTZEKO ESKAERA MOZIOA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

"Gizarte Larrialditarako Laguntzaren diru laguntza lerroaren indartzeko eskaera mozioa.

Administrazio publikoek herritarren bizi kalitatea eta oinarrizko eskubideak bermatu behar dituzte. Hori horrela, bizitzeko oinarri oinarrizkoak diren zerbitzu eta eskubideak bideratu behar dizkie herritarrei eta hauek kalitatezkoak izan daitezen lan egin behar du. Modu horretan, hezkuntza zein osasuna bezala bizitza autonomo eta duin bat izateko eskubidea du herritar orok, Nazio Batuen Erakundearen bere 25. artikuluan dioen moduan: *Toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la vivienda, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios; tiene asimismo derecho a los seguros en caso de desempleo, enfermedad, invalidez, vejez u otros casos de pérdida de sus medios de subsistencia por circunstancias independientes de su voluntad.* Oinarrizko eskubideen bizi kalitateak asetzen dituen administrazioak gizarte kohesionatu eta orekatua du, zeinaren bidez, herritarren arteko segurtasuna bermatzen laguntzen duen. Egun, krisialdi ekonomikoaren testuinguru batetan egonda, inoiz vaina garrantzitsuagoak dira eskubide hauek bermatzeko administrazio publikoek lan egitea. Langabeziaren igoerak gizarte kohesioa hausteko bidea irekitzen duelako eta honen bidez herritarren oinarrizko eskubideak ez bermatzea eraman. Beharrak inoiz baina handiagoak izaki, administrazioek ahaleginak handitu behar dituzte eta horrekin batera aurrekontu partidak.

Testuinguru honetan, 2008ko Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legeak inoiz baina garrantzia handiago hartzen du. Bertan aurrez eskaintzen ziren zerbitzu asko oinarrizko eskubide izatera pasatzen dira eta administrazio publiko bakoitzari dagozkion zer eginak zehaztu. Eskubide eta egin behar horien artean GLL, Gizarte Larrialditarako Laguntzak daude. Hauen bidez, herritar askok behar beharrezkoak dituzten gaiak ordaintzeko laguntza jasotzen dute, hala nola, etxebizitzaren alokairua, elikagai, janzteko arropa zein bestelako oinarrizkoak. Laguntza honen arduraduna Eusko Jaurlaritza da eta udaleko gizarte zerbitzuen bidez banatzen dira herritarrei.

Gizarte-larrialditarako laguntzak ez dira aldizkakoak, dirutan ematen dira, subentzio moduan eman ere. Gizarte-bazterkeriarik gerta ez dadin edo halako bazterkeriak konpontzeko behar beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko nahiko baliabiderik ez dutenentzako dira, eta berdin du dena delako gastua arrunta edo ez-ohikoa den. Azken urteetan, herritarren beharrak handitzen joan ahala diru funtsa honen zenbatekoa ez da nahikoa izaten ari. Jaurlaritzak aurreikusten dituen partidekin ez da urte guztirako emaria bermatzen. Iaz uda iristeko agortu zen Jaurlaritzak funtzio hauetarako aurreikusia zuzen partida. Aitzitik, Gipuzkoako udalek euren gain hartu behar izan zuten laguntza horren zama Gasteizko aurrekontua amaitutakoan. Onuradunak gero eta gehiago dira eta baldintzak asko zorrotz dira:

- 8.000 €ko ondarea baino handiagoa dutenek ez dute gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzeko eskubiderik izango (orain arte, gehieneko ondarea 40.000 €koa zen).
- Ezin izango da gizarte-larrialdietarako laguntzarik eskatu, aurretiazko zorpetze gastuak estaltzeko.
- Ohiko etxebizitza erosteko kredituen interesak eta amortizazioak ordaintzeko GLLak gehienez 12 hilabetetan zehar jasoko dira, nahiz eta orain arte ez zegoen horretarako eperik.

2014. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzari begirako aurrekontua 15.865,77 eurotako izan da) eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 11.371 eurotako. Aurten ere, udaleko gizarte zerbitzuek 4.500 eurotako diru partida bat eskatu dute urte amaiera arte eskubidea duten horiei hau bermatzen jarraitzeko. Hau dena kontutan harturik, IRURAKo Udalak, "Gizarte Larrialdietarako Laguntza" izeneko diru laguntzaren beharrezkotasuna onartzen du, beraren bidez gizarte kohesioa sustatu eta oinarrizko giza eskubideak bermatzen laguntzen dutelako.

-Herritarrek dituzten beharrak asetzeko adinakoa izan dadila Eusko Jaurlaritzaren GLL ko diru ekarpena.

-Mozio honen berri Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte politiken departamendu eta sailburuari, lehendakaritzari, ogasun eta finantza departamendu eta sailburuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politika departamendu eta diputatuari ematea."

Eta Udalbatzak, aho batez, onartu du.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, jarduneko alkateak 19:00tan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA